

MENDI GAÑA

L I Z A R D I

FOR MATXIN LABAYEN

*Maite ditut galurrak argiak ez beste.
Ai, egaztia ba'nintz gañik gain nenbilke.*

*Ion San Martin
nere lagun zarrari.*

Adixkide maitea:

Picenaika azken zenbakiann — pozik — umetxo bat bezela irakurri ditut ire gertaera arrigarriak Cervino izugarri aldean.

Bai «gorrik» igaro ditukela Mutilla! Oldar (Momentu) txarreta'n ere-bai umoria izan dekela! Eibartarrak ba dezute... gatza...

Cervino bezin txuri eta ezatsua! Oldar txarretann bere apaltasuna galtzen ez dun gizona-aundia dek noski! An gora'n tontorria'n-gure Lizardi aundiz gogoratu aiz (noski)! Ez dek arritzekua! Elur— zuritasun— eta otza bakarrik aurrea'n ditukela nola ez ekarri burubara gure olerkari obeare'n bertso orlegi ta beroak? Aundia aiz benetan egitaz!

Kanpotarra izan ba itzan— lurraldi urruti batekoa— bai azkar— txispakiniann No do'n agertu!

Baian nola Euskaldun jatorra aizen — garbi ikusi degu zer gertatu dan!
«kaxo motel» ta «Akabo»!

Jainkoak emango al dik fede ta osasuna beti ola ain garbi ain kementsu jokatzeko! Batez ere mendi'n eta bai ta ere beste toki guztita'n!

Eta orain— adixkidea— gaizki artuko al dek— (Nik ba zekiat ezetz eta orreatik esaten diat) nik agertuko— esango didatena? Ez? Entzun ba...

Tolosako mentieta'n— (Tolosa'n Eibarre'n bezela laixter ainbeste ola ta etxe berriekinn— mendi puntara joan bearko degu berde goxo pixka baten billa) kaletik oso berta— ba dago ixkia— leku— zoragarri bat — paketsu— izkutua— mixterio bat bezela— ta atxe ik aitatu deken Lizardi'n oroigarri— arria— arri zuri eta gorria— noski berdez inguratua—!

Ta— o gauza miragarria— arri orrek urrutitik ikusita zeru urdiñera urratutako azkon— lirain dizdiratsu baten antza da!

PYRENAICA

Ez da auxen-miraririk aundiena— Arrita joateko bidea ez da noski txikiena! Malda pollit txiki bat igota gero— ara ire begie'n aurrea'n zelai zabal orlegi iriki— gloriosua agertu! Zelai orren ondoan— pago baso illun lodi— paregabea zegok (Baso itzal?) ta baso ori bukatzen amitzen dan lekuan— Lizardi'n arria. Neretzaz ez dago urruti eta iretzat orduan gutxiago oraindik. Etorriko aiz noski— ez al da egia?



An goia'n arri'n bertan— Txindoki urdiña aurrea'n daukagula urtu— ezeztua— aritz ostro koroiakinn apaïnduko det ire burua— eta ba al dakik zergaitik? Ba Gipuzkoa ta Euskalerriko mendigoizale onena aizelako— Ori lenbizi— eta gero— ba gero... ba dakik zer...

Euskalerriz itz egingo degu— itz egin bakarrik... zerutar leku goxo ixil artan— txorien kantak lagun.

Eta leno puskatu eta orain berriz berritua dagon zer gogoramen ex ditu piztuko gure biotzeta'n?

Itxaropen gogoramenak nere ustea'n Oroigarri ori — bere zauriarek'i'n eta guzti— arriak ez ote ditu bere zauriak?— bañan orain —oso— tente — ez al da Euskalerra berpizteare'n— (berpizteare'n) irudia?

Arri erdi erdinn— bere biotze'a'n idantzestuak daude'n bertso oiek ez al digute zerbait erantzuten? «Zein dan ituna bera bear au... nik ez nai eguna biurtzerik gau.

Udazken goiz batea'n... Ai ene! Euskalerriko «Eguna ez al da «gau» biutuko?

Ez—! Ez—!

Udazkena Euskalerra'n? Ori gertatu balitzake... Hamletek dio: Izan edo ez izan— or dago korapilloa—

Guretzat ere ez dago beste biderik. Euskeraz itz egin— a degun guztia— obetogo edo okerrago Euskalerra bizi dedin. Eta ori Euskaldun guztik egin genezake— saitzen ba gera. Gure aurrekoak egin dutena zergatik ez degu guk egingo?

Atzo... Orixe-Lizardi — Azcue— Aitzol— Manterola— Aguirre— Alzaga Campion— Axular— Elissamburu— Arrese— Otaño. Gaur... Mitxelena— Etxaide— «Iratz— Eder». Biar... Guk nai deguna. Ori bakarrik argi eta garbi.

Atzo— Gaur eta Biar— beti aurrera— denoki alkartuta— alkartasuneann dago gure indarra— gure izkuntza— gure kultura gure gogoramena aberastu— zabalduaz!

Bañan— ba dakit zer esango deken... ez dete bukatzen bai arrazoia deken denbora aurrea dijoa ta barkatu... Ala ere—.

Ez al algo nereki'n? Bai noski... milla esker Orain, Udazkena— gure egoera bertan daukagu...

Ba dakik orrek zer esan nai dun...

Agur ta sarri arte—.